


ESKUKO

ESKUKO ESKAILERAK ERABILTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

Eskuko eskailera erabili aurretik zein lan egingo den eta eskuzko eskailera edo beste baliabideren bat erabiltzea komeni den aztertu beharra dago.

Esfortzuak eta bi eskuak erabiltzea behar duten lanentzat, klima baldintza okerrekin kanpoan lan egitea, ikusmen txikiarekin edo bestelako arriskuekin lan egitea eskatzen dutenentzat, eskuzko eskaileren ordez beste baliabide batzuk erabili beharko lirateke, aldamiok, plataforma mugikorak, motordun plataformak, etab.

Eskuko eskailera fabrikatzaileak azaldutako moduan eta mugekin erabili beharko dira. Horregatik, haiek erabili aurretik irakurri beharko dira fabrikatzailearen gidalerroak.



Lanak 3,5 metrotik gorako altueran, operazioa egiten den lekutik zorrura, langilea mugitzea edo haren egonkortasuna arriskuan jar dezaketen esfortzuak egitea eskatzen duenean, segurtasun udala erabiltzen bada bakarrik edo beste babes-neurri batzuk hartzen badira bakarrik egin ahal izango dira.



ERABILERA ARAUAK

Eskuzko eskailera erabiltzen direnean egonkortasuna bermatzeko moduan jarriko dira.

1. Eskuzko eskailera jarri aurretik, oinarria aztertu behar da, kable elektrikoekin, hodiekin eta abarrekin kontaktuak saihesteko.
2. Ezazu inoiz jarri eskailera elementu ezegonkorren edo mugikorren gainean (kutxak, bidoiak, xaflak, etab.).
3. Gainazalak lauak, horizontalak, erresistenteak eta irristagaitzak izan behar dute.
4. Eskailera lurzoru inklinatuan jartzeko, doitzen diren zapatak jarri behar dira langetak horizontalean gera daitezen.
5. Ez itzazu jarri tentsioan dauden eroale elektrikoetatik gertu edo ate baten aurrean, hura trabatu eta seinalezatu ezean.
6. Ez itzazu jarri igarobidean, oinezkoek edo autoek haiekin talka egin ez dezaten, eta jarriz gero, balizatu ezazu edo jarri norbait abisatzeko.
7. Eskuzko eskaileren oinak irristatzea eragoziko da erabiltzen den bitartean, bai goiko edo beheko langeta finkatuz, bai irristatzea eragozten duen gailuren bat baliatuz, edo efektu bera eragiten duen beste irtenbideren baten bitartez.
8. Eskailera bikoitzean lan egitean, tentsorea beti egongo da guztiz luzatuta.
9. Eskailera luzagarriekin lan egitean, besarkagailuek irmo eusten dutela egiaztatu.
10. Eskailera higitzea galarazten duten neurriak hartu behar dira haietara igo aurretik.
11. Ibilgailuen bideetatik hurbil erabili behar direnean, eskailera kolpeetatik babestu behar dira.
12. Pertsonak eskailera azpitik igarotzea galarazi behar da.



ESKUKO

Eskuzko eskailerak ez dituzte erabiliko langile batek baino gehiagok aldi berean.





Eskuzko eskaileratik igotzea, han lan egitea eta handik jaistea eskuak libre dituzula, eskailerari begira, eta maila edo langetei eutsiz egin behar da.

Maila guztiak erabili eskaileratik igotzeko.




Ez saiatu eskaileratik urruti dauden objektuak hartzen. Albo batera mugitu behar baduzu, jaitsi eskaileratik eta lekuz aldatu. Ez egin beharrezkoak ez diren oreka-jokorik.

Debekatuta dago bat-batean eraikitako eskuzko eskailerak erabiltzea.









Eskailerara begira igo eta jaitsi behar da. Heldu eskuekin langeta, ez mailak.

Materialak edo erremintak eskuz eramateko orduan, euste segurua ez eragozteko moduan egingo da. Debekatuta dago kargak garraiatzea eta manipulatzeko eskuzko eskaileratik, haren pisuak edo neurriek langilearen segurtasuna arriskuan jar dezaketenean. Ez dira erabiliko eskuzko eskailerak pasabide gisa, ezta materialak garraiatzeko ere.



ESKUKO

<p>Ez igo azken mailetara arte, haietara eusteko libre geratu behar dira.</p>	<p>Eskuzko eskailera bikoitzak erabiltzean, ez igaro alde batetik bestera goitik, eta ez egin haren gainean lan, "zaldian" bezala.</p>
	
<p>Ahal den neurrian, horizontalarekiko 75º inguruko angelua eratuz jarri.</p>	<p>Eskailera bikoitzak irekitzeko angelua gehienez 30º izango da, eta bi planoak lotzen dituen soka luzatuta edo irekitzea mugatzen duena blokeatuta jarriko da.</p>
	
<p>Goian dauden tokietara irteteko erabiltzen direnean, langetak 1 metro edo gehiago luzatu behar dira haren gainetik, eta ongi finkatuko da.</p>	<p>Eskailerara igo aurretik, oinetakoen zolak eta mailak garbi daudela, koipe, olio edo bestelako substantzia irristagarririk gabe gehienbat.</p>
	
<p>Bi aldeetako eskailerak ez erabili oinarri-eskailera gisa. Edozein unetan irristatu daitezke eta istripu bat eragin; bi aldeetako eskailerak ez dira horretarako egin.</p>	<p>Inoiz ez erabili eskuzko eskailera langilea gainean dagoen bitartean.</p>

ESKUKO

Eskailera erabili ondoren, hurrengo egin behar da:

- Garbitu haien gainera erori ahal izan diren substantziak.
- Aztertu itzazu eta haien segurtasunean eragina izan dezakeen kalterik aurkituz gero, adierazi ezazu haren erabilera debekatuko duen kartel batekin eta bidal ezazu konpontzera edo beste batekin ordezkatu.

ESKAILERA JASOTZEA

Pertsona bakar batek eta eskailera arinen kasuan plano bakarrekoak.

- Jarri eskailera zoruaren gainean oinak irristatzea eragotziko duen traba erresistente baten gainean oinarrituz.
- Jaso eskaileren beste muturra.
- Mutur horren gainetik joan pixkanaka, maldaz maldaz, posizio bertikalean dagoen arte.
- Etzan eskaileren burua oinarritzeko punturantz. Bi

persona bakoitzeko (25 kg-tik gora edo baldintza okerrak)

- Bata beheko partean lehenengo mailaren gainean makurtuko da eta eskuak hirugarren mailan jarriko ditu.
- Bigarrenak aurretik azaldutakoa egingo du.

Etzateko, aurkako operazioak egin, beti ere bi pertsonekin.

ESKAILERA GARRAIATZEA

<p>Eskailera bakunak edo bikoitzak bakarrik garraiatuko dira, beti ere 25 kg-tik beherakoak. Ezingo da hura jiratu edo bizkarrean eraman, muntaga artean, etab.</p>	<p>Eralda daitezkeen eskaileren kasuan, bi pertsona beharko dira eta hurrengo neurriak hartuko dira:</p>
<p>Ez da garraiatuko horizontalean. Aurreko partea beherantz duela eraman. Luzagarria plano mugikorretan mailak blokeatuz jaugailuekin garraiatuko dira, eta sokak maila desberdinetan aurrez aurreko bi maila lotuta. Ez eraman arrastan eskaileren sokak lurretik.</p>	
<p>Bi aldeko eskailerak tolestuta eraman.</p>	<p>Ez itzazu erabili materialak garraiatzeko.</p>


ESKUKO

BILTEGIRATZEA

Zurezko eskailerak eguratseko eragileetatik babestuta eta ikuskaritza errazten duten tokietan biltegitratuko dira.

Eskailerak ez dira biltegitratuko etzanda.


Eskailerak horizontalean biltegitratuko dira, euskarri finkoetara eutsita, hornei itsatsita.





IKUSKATZEA

Eskailerak erabili aurretik eta, gehienez, sei hilean behin ikuskatu behar dira. Egiatzatu, besteak beste:


Erdi-solte, gaizki lotuta, hautsita, arrapalekin edo barraz ordezkatuak edo soka edo alanbreekin lotuak.



Euste eta oinarri sistemak egoera txarrean.



Akatsen bat eskailera mota batzuk luzatzeko behar diren elementu osagarrietan (poleak, sokak, etab.).



Akatsen bat aurkituz gero, eskailera baztertu behar da. Langile espezializatuak hura konpondu beharko dute edo betirako baztertuko da. Egingo diren azterketa guztiak dokumentuetan bilduko dira.